

Itxialdiak iraun duen bitartean, saltoki elektronikoetako ordainketak 2019ko bilakaeraren ginetik kokatu dira

## **Txartelen bidezko ordainketak garrantzia handitzen ari dira deseskalatze prozesuan**

- **Ekaineko lehen astean saltokietako gastuak 1,4 bider hazi dira iazko ordainketen aldean**
- **Etxeetako kontsumoaren arabera, 'V' erako berreskurapenak izango luke ekonomiak**

**2020ko ekainaren 11n.** Kutxabankek kontsumorako produktuen eskariak etengabeko berreskurapena sumatu du, eta maiatzeko azken astean iazko garai berean zenbatutako emaitzak berdindu dira. Hori guztia, gainera, ekoizpena hutsaren hurrengoa izatera iritsi ostean, alarma egoera deitu eta gutxira.

Hala nola, deseskalatze prozesuan merkataritza-maileguak nolabaiteko normaltasuna berreskuratzen ari dira, eta maiatzeko azken astean iazko emaitzen %50 inguruan ibili dira.

Egoera larrien zegoen asteetan, bere kutxazain automatikoetan ateratzen zen dirua %80 murriztu du iazko datuekin alderatuz gero. Halabaina, maiatzeko azken asteetan eta ekaineko lehen egunetan berreskurapen zantzuak sumatu dira, eta kutxazain automatikoen jarduera %20 jeitsi da, nolabaiteko egonkortasunarekin. Aintzat hartu behar da, pandemiaren baldintzek txartelen erabilera sustatu dutela, eskudiruaren kaltetan.

Hain zuzen ere, saltokietan txartelen erabilerak izan duen hazkundera izan da xehetasun aipagarrienetako bat. Ekaineko lehen astean, saltokietan egin dren gastuak iazkoaren aldean 1,3 aldiz hazi dira. Honek erakusten du itxialdia amaitzean, gastuaren maila bere onera itzultzen hasia dela. Gune geografikoei begiratzuz gero, 2. fasean sartu diren zonaldeetan gastua iaz garai berean baino handiagoa da, eta lehen fasean dauden zonaldeetan txartelen bidezko gastua murriztagoa da.

Maiatzeko hainbat egunetan, eta 2 fasea indarrean jarri zenetik modu iraunkorren, kontsumoa iaz garai berean baino handiagoa izan da. Eskudiruarekin gertatu ez bezala, txarteekin eginiko kontsumoa ez da itxialdian inoiz izan iaz garai berean baino %60 txikiagoa.

### **Merkataritza elektronikoaren bultzada**

Ohiko merkataritzan ez da gauza bera gertatu, baina osasun krisialdiak iraun duen bitartean, merkataritza elektronikoaren bilakaera iazkoa baino handiagoa izan da, ia

epealdi osoan. Joera hau urteko lehen zatian ere nabaria zen, baina itxialdiko lehen hilabetean erabat aldatu zen, bigarren hilabetean berriro ere bere onera etorri aurretik. Deseskalatze prozesua hasi zenean, aurreko urtean zenbatutako baloreak berreskuratzen hasi zen. Beraz, inguru fisikotik birtualera joan da gastua, baina deseskalatze prozesuan saltoki fisikoetara itzuli da berriro gastu horren zati bat.

Gehien hasi diren merkataritza-alorrak supermerkatuak, botikak eta urruneko salmentako kanal izan dira.

Aitzitik, itxialdiak iraun duenean jarduera ia erabat eten dute gasolindegiek, ibilgailuen alokairuak, hotelek edota jatetxeek.

Maiatzeko azken astean eta ekaineko lehen egunetan, ia merkataritza-alor guztietan berreskurapen zantzuak nabari ziren. Aipagarrienak drogeriak, bitxi-dendak, salmenta gune handiak edota xehekako merkataritza izan dira. Jatetxeen bilakaera ere deigarria izan da, ekaineko lehen astean iazko fakturazioa gainditu baitute, bai eta aisialdiko jarduerena ere, %90 ingurura iritsi baitira. Beste aldean, turismoaren alorra kontsumoaren atzeraldia jasaten ari da, 3. fasea hastean berreskuratuko den aurreikuspenarekin.

## **Ondorioak**

Kutxabankek aztertu dituen datuen arabera, ekonomia 'V' eran berreskuratuko litzateke, eta etxeen eskariaren ikuspuntutik, nahiz eta ziurgabetasun handia dagoen.

Eskudiruaren erabilera murriztu dela ere sumatzen da. Lehendik zetorren joera hau, baina itxialdian abiadura bizkortu du, eta etorkizunean nabaria izaten jarrai lezake.

Itxialdia amaitu ostean jarduerari berrekin ahal izan dioten saltokiek kontsumoa bizkor berreskuratzen ari dela nabarmendu dute, eta normaltasunerako joera hori argiagoa da deseskalatzean aurrera egiten ari diren gune geografikoetan.